

Mikel Zalbideren *diglosiaren purgatorioaz* txostenari buruz hausnarketak

Maria-Jose Azurmendi

UPV/EHUko katedradun ohia eta BATen zuzendari ohia
ehu-azurmendi@telefonica.net

Artikulua jasotze-data: 2011-06-27 | Artikulua onartze-data: 2011-07-29

Laburpena. Maria-Jose Azurmendik bere erantzun-artikuluan Zalbideren lanaren pertinentzia azpimarratzen du, hizkuntza-soziologiaren ikuspegitik diglosia terminoren inguruan nahasmendua egon badagoelako. Baina, aldi berean, giza zientzietan gertatzen den terminoen balio anitzen fenomeno oso ohikoa dela erakutsi du, gizarte-fenomenoak geroz eta konplexuagoak bihurtzen ari direlako. Mikel Zalbidetik proposatzen duen tesiaren muinarekin, alabaina, Azurmendik zalantzak ditu. Euskararen etorkizuna, garatu beharreko diglosia egonkor berri bati lotuta ezinbestean egon behar duelako tesiarekin ez dator bat. Hau da, ez du bat egiten konpartimentazio sozio-funtzionala, demolinguistikoa eta lurraldekoa bilduko lukeen diglosia-mota hori garatu eta egonkortu daitekeen tesiarekin. Horrez gain, talde eta hizkuntza “dominatzaile”-en aurreko azalpenak eta posizionamendua ere kontuan hartu behar direla azpimarratu du Azurmendik. • **Hitz-gakoak:** *diglosia, demolinguistika, Fishman, konpartimentazio funtzionala.*

Abstract. Reflections on Mikel Zalbide’s report on the purgatory of diglossia. In her paper in response, Maria-Jose Azurmendi highlights the relevance of Zalbide’s work, because there is confusion surrounding the term diglossia from the sociolinguistic perspective. But at the same time she shows that the phenomenon of multiple values of terms is very common, because social phenomena are becoming increasingly complex. Nevertheless, Azurmendi has doubts about the crux of the theory being put forward by Mikel Zalbide. She does not agree with the theory that the future of Basque has of necessity to be linked to a new stable diglossia that needs to be developed. In other words, she does not concur with the theory that this kind of diglossia, which would consist of socio-functional, demolinguistic and territorial compartmentalisation, could develop and become stabilised. Azurmendi also stresses the fact that the explanations and positioning with respect to the “dominant” group and language also have to be taken into account. • **Key Words:** *diglossia, demolinguistics, Fishman, functional compartmentalisation.*

BATeko zenbaki monografiko honetan Mikel Zalbiderek *Diglosiare purgatorioaz* (ikusi oharra, testu bukaeran) izeneko lan luzea eskaintzen digu, honi buruz hausnarketa egitea proposatu, eztabaida sortu eta erantzunak jaso asmoarekin; edo Mikelek esan bezala, bere oinarri-txostenari ohar-iruzkinak egitea eskatuz. Aurretik ere “diglosia” gaia Zalbiderek landuta du, 2008 eta 2011 urteetan (txostenaren 1. orrialdean), baina oraingo lana osatuagoa dela esaten digu. Hauxe da ba egin nahi dudana artikulu honetan: Zalbidere oinarri-txostenari nire ohar-iruzkinak edo hausnarketak egitea.

Oso egokia iruditzen zait gure BAT aldizkarian ere honako eredu erabiltzea: gai bati buruz aditu batek oinarri-txostena eskaintzea, Zalbidere txosten hau honakoan, eta honi buruz beste aditu batzuek beren iruzkin-ohar kritikoak egitea, txostenaren 1. orrialdean esaten den bezala. Pozten nau ni aditu hauetako bat izatea; egia esango badut, “diglosia” gaia nahiko ezaguna zaidala iruditzen zait eta askotan aipatu dut nire lanetan (euskararekiko egungo egoera diglosikoa ez dela, baizik erredundantea dela, esanez). Diglosia gai honi buruz eredu hau bera erabili zuen Joshua A. Fishman editoreak *International Journal of the Sociology of Language*, 157: Focus on Diglossia, 2002 aldizkarian, orduan: Alan Hudson izan zen bai hasierako oinarri-txostena eta baita azkeneko ondorio modukoak ere idatzi zituenak, eta 12 adituek eman zituzten beren iruzkinak, neroni horien arteko bat (Azurmendi 2002).

Txostenaren aurkibidea jarraituz nahiko ondo ikusi daiteke zeintzuk diren txostenaren atalak, asko laburtuz honako bi helburu nagusi lortu nahian, nire ustez: 1) teorikoagoa dena, “diglosia” termino-teknikoaren bilakaera eta argitze-saioa egitea, eta 2) praktikoagoa dena, nola eta noraino “diglosia” aplikatu den euskarari, orain arteko historia eta egungo egoera adierazteko eta azaltzeko, eta baita nola eta noraino aplikagarri den ere gerora begira euskararen etorkizuna lortzeko. Askotan gertatzen den bezala, txosten honetan ere oharrak ugariak eta argigarriak dira: irakurtzea komeni da. Bibliografia ere aberatsa da. Txostena luzea da, baina nire erantzuna motza behar du izan, eta horrela alderdi gutxi batzuk aukeratu beharko ditut, interesgarrienak iruditzen zaizkidanak.

Bestalde, txostenaren estilo-komunikatiboa mistoa dela iruditzen zait: erdi-akademikoa eta erdi-lagun artekoa, horregatik batzutan 3. pertsona eta bestetan 1. edo 2. pertsona adierazten dira edukiak, galdera zuzenak ere egin, “irakurle lagun” eta antzeko esamoldeak sartuz, metafora birtartez zenbait ideien esanahiak gerturatuz (tituluan bertan agertzen zaigun bezala “purgatorioa” hitzarekin), ...; horrela ba, nik ere antzeko zerbait egin beharko nuke? Eta estilo-linguistikoa ere berezia du txostenak, nire ustetan noski, adibidez: askotan kakotxak jarritz hitzen artean, termino

**Txostenean ez da
bestelako biderik
ikusten euskara
mantentzeko,
diglosia bidea
bakarrik
onartzen da.**

teknikoekin ohizkoa dena, baina batzutan esperoko nituzkeen baino kasu gehiagotan, eta bestetan berriz kasu gutxiagotan; honek adierazten du badagoela zenbait termino-teknikoei buruz zer esana, oraindik ere.

TXOSTENAREN AZKEN XEDEA

I
Komenigarria iruditzen zait puntu honekin hastea: zein den txostenaren azken xedea adieraztea, honek emango digulako oinarritzko eszena-gunea gero esango diren guztiak nola jokatzeko duten, eta nolako esanahia duten, ulertzeko. Nahiko ohizkoa da, horrelakotan, lan baten (liburu, kapitulu, artikulua ...) hasierak eta bukaerak, edo sarrera eta ondorio atalak, irakurtzetik hastea, eta gero erdiko ataletara pasatzea, gauzak hobeto ulertzeko; horixe da nik ere egingo dudana orain.

Txostenaren hasieran nahiko garbi ematen da zein den xedea: 1) hizkuntza-soziologiaren ikuspegitik "diglosia" termino-teknikoari buruz argitze-saioa eskaintzea; 2) euskararen etorkizuna nola izango den posible adieraztea diglosiaren bitartez, batik bat diglosiaren honako bi ohizko ezaugarriak erabiliz: "konpartimentazio: soziofuntzionala + egonkorra", euskara-erdara artean: "euskara-erdarak hemen izango dira etorkizunean, euskara bizirik ateratzen bada, eta beraz hizkuntza bakoitzak espazio fisiko-territorialaren, sozio-funtzionalaren edo bien zati bana bere mende izan beharko duela onartu beharko dugu. Hots, hizkuntza bien (eta, beste maila batean, ingelesaren) konpartimentazio egonkor samar bat diseinatu, gizaratean adostu, inplementatu eta egonkortu beharra daukagula ... diglosiazko formulazio berritu bat hil ala biziko eginkizuna dugu. Hori gabe jai du euskarak... Behar-beharrezkoa dugu konpartimentazio hori, handiak txikia jango ez badu... Premia larriko beharra da hori, gainera: denbora gure kontra doa".

Txostenaren bukaeran, berriz, nolako diglosia posiblea den, hemen eta orain, euskararen etorkizuna ziurtatzeko, adierazten da: "diglosia molde berritu bat eratzea" ezinbestekoa dugu. Hau da, txostenean ez da bestelako biderik ikusten euskara mantentzeko, diglosia bidea bakarrik onartzen da, nahiz eta diglosia-molde edo mota berritu batean eratzea proposatzen duen. Molde berria eraikitzeke, Zalbideri argibide zaio Fishman-en "Reversing Language Shift - RLS" eredu, 1991 eta 2001 urtetan argitaratutakoa (2001koan, RLS eredu euskarari aplikatutako kapitulu dago, Azurmendi et al. eginekoa); Zalbidek gertutik ezagutzen duen eredu da, berak ere aplikatu duelako euskarari (Zalbide et al. 2006).

Fishman-en RLS eredu (HINBE=hizkuntza indarberritzea, euskaraz), nahiko ezaguna dena gure artean (Zalbideren txosten honetan 70. orrial-

dean dugu), hizkuntza mehatxatu (=threatened, gutxiagotua baino areago doana) baten joera-aldaketarako bi etapa nagusi bereizten ditu, bakoitza 4 azpi-etapatan banatuz: 1.) diglosia egoerara iristeko, behin eta aurretik “assuming ideological clarification” lortu (gurean oso nekeza gertatzen ari zaiguna, Azurmendi et al. 2001), gehien bat “the intergenerational and demographically concentrated home-neighborhood-community (=etxe-auzo-lagunarte): the basis of mother tongue transmission” egoera lortu arte, garrantzitsuena dena Zalbiderentzat, eta niretzat ere ezinbestekoa dena; 2.) diglosia egoera gainditzeko, behin eta hizkuntza mehatxatua derrigorrezko eskolan sartu eta hau kontrolatzea lortzearekin hasi eta “education, work sphere, mass media and governmental operations at higher and nationwide levels” lortu arte. Nik ondo ulertu badut, Zalbidetik ematen dituen gomendioak azken-aurreko azpi-etapan gelditzen da, “... governmental operations at higher and nationwide levels” azken azpi-etapara iritsi gabe. Hala ere, Zalbidetik esaten diguna da euskarak diglosia egoera lortu behar duela, eta egoera diglosikoa egonkorra izan behar duela, baina ez diglosia gainditu behar duenik, nahiz eta hau ere posible den, Fishman-en ereduaren ere, eta beste teori ezberdin batzuk erabiliz ere ikusi daitekeen bezala.

DIGLOSIA ZER DA, ZALBIDEREN TXOSTENEAN?

I

Zalbidetik gainbegiratu ederra egiten du “diglosia” termino-teknikoaren inguruan, orain arte mantentzen diren bi bide nagusien (ez bakarrak, ordea) inguruan; asko laburbilduz: Ferguson-en eredu, hizkuntza baten inguruan, eta Fishman-ena, hizkuntza ezberdinen inguruan (“hizkuntza-ukipen” egoeretan). Bi ereduak gurean euskararekiko aplikatzen saiatu dezakegu (proposatzen nuen bezala RLS-euskara aztertzerakoan, endodiglosia eta exodiglosia deituz egoerak hobeto bereizteko, Azurmendi et al. 2001), baina orain hizkuntza ezberdinen artekoan ari da Zalbidetik, eta arituko naiz ni ere (bestalde, gure artean jadanik dagoen tradizio nagusi honetan ni ere sartuz).

Gainbegiratu honetan agertzen zaigun egoera oso nahasia dela Zalbidetik ere esaten digu, baina ezin bestekoa gertatzen da munduko horren testuinguru ezberdinetan diglosia aplikatu eta egokitzen denean; hau ez da harriztekoa, ordea, hizkuntza-soziologian horrelakoak mahiz gertatzen direlako beste zenbait termino-teknikoekin ere (“elebitasuna”, “hizkuntza-ukipena”, ...).

Zalbidetik proposamen digun “diglosia-modua” edo mota berezia dela ere esango nuke, zeren: 1) konpartimentazioa aplikatzen du ez bakarrik

**Gehien
kezkutzen
nauena da,
ordea,
proposatzen
dituen bi
konpartimentazio
demo-
linguistikoa eta
demo-
lurraldezkoa
(oasiak, ...).**

ohizko hizkuntzen funtzio-soziala ezberdinen arabera, baizik eta baita beste bi alderdi hauen arabera: demo-linguistikoa eta demo-lurraldezkoa, nire ustez teorikoki interesgarria izan daitekeena, baina aplikagarri ia ezinezkoa dena; 2) konpartimentazioa oraindik ere iraunkorra gerta daitekeela, eta gertatu beharrekoa dela ere menpeko-hizkuntza mantendu ahal izateko, (Fishmanek, 1967an esan bezala agian?), nire ustez oso zailantzezkoa dena hemen eta egunean (ikus Fishman et al. 2011). Gehien kezkutzen nauena da, ordea, proposatzen dituen bi konpartimentazio demo-linguistikoa eta demo-lurraldezkoa (oasiak, ...) hauek, euskararen iraunkortasunerako: ezinezkoa izateaz gain, baita ere euskararekiko izango litzatekeelako ez salbazio bidea, Zalbidetik uste duen bezala, baizik, alderantziz, galbidea; gauza bat da ikustea halako konpartimentazio motata goazela, pixkanaka, egunean (shift), baina bestea da hau horrela izan behar duela onartzea, eta nik ez dut onartzen, benetan nahi badugu euskararen etorkizuna ziurtatu (reversing shift). Hau guztia ondo argitzea komeniko litzateke (nik ezin dut artikulu motz honetan egin).

Konkretuki, nolako moduan ulertzen duen ikusteko, irakurri dezakegu txostenaren azken paragrafoan euskararen kasuan nola aplikatzen duen: "Hiztun-herri txikion etorkizuna, ia beti eleanitza eta kulturantza izango da. Elebakartasun territorial erabatekorik nekez, arnagune jakinetatik kanpora bereziki oso nekez, gu bezalako hiztun-herri txiki-ahul batek inon (Europa moderno, interaktibo, supraetniko honetan inon baino gutxiago agian) eskura dezake. Geure asmoak eta atsegin-bideak beste enfoke global-gizatiarrago baten txertatzen eta aberasten ikasi behar dugu hortaz. Diglosiazko hesi-mugez zurkaiztu beharko da sarri, hortik gorako konpartimentazio fisiko-territorialik eratu ezingo denez, hiztun-elkarte horien bizimodua". Honen ondoan, txostenean aurrerago esaten dena errepikatzea ere argigarri da: "Horra, irakurle lagun, euskara indarberritzeko orduan diglosia zergatik den hain garrantzitsu. Diglosia da, halakorik onartu nahi ez badugu ere sarri, bene-benetako erronka. Euskarerदारक seguruenik hemen izango dira etorkizunean, euskara bizirik ateratzen bada, eta beraz hizkuntza bakoitzak espazio fisiko-territorialaren, sozio-funtzionalaren edo bien zati bana bere mende izan beharko du. Horretara iristeko, berriz, hizkuntza bien (eta, beste maila batean, ingelesaren) konpartimentazio egonkor samar bat diseinatu, gizartean adostu, inplementatu eta egonkortu beharko da. Beste hitzetan esanik, diglosiazko formulazio berritu bat eratu beharko da. Hori gabe jai du euskarak, hasi berria den mende honetan. Behar-beharrezkoa dugu konpartimentazio hori, handiak txikia jango ez badu". Hau guztia, azken ondorio bezala emanez, ez dela nahiko iruditzeaz gain, ez dela ere eus-

kararen biziraupena lortzeko bide egokia iruditzen zait; ez nago ados horrelako proposamenarekin, nahiz eta eguneko diagnosia egiteko baliagarria izan daitekeen..

Hau ikusita, hobeto ulertzen dut, adibidez, euskararekin lotzen diren terminoak, txosten honetan, horrelakoak izatea: hiztun-taldea, hiztun-elkartea, euskaldun-jendea, hiztun-herria, hiztun-jende xeheak, hiztun-herri-txiki-ahula, euskal konstelazio etnolinguistiko-txiki hau, oasi-izaera, hiztun-herri txiki-ñimiñoa, hiztun-elkarte berregina, hizkuntza-ahula, hizkuntza ahuldua hizkuntza-txikia (zergatik ere ez hizkuntza-menperatua, gutxitua, gutxiagotua, mehatxatua, ...?), ...; eta gutxitan aipatzea Euskal-Herria (beste idazleak errepikatzerakoan ia bakarrik), edo behin ere ez aipatzea EAE/Nafarroa/Iparalde bere osotasunean (bai ordea Deba-bailara), ..., ondorioetan ere ez.

ZER GEHIAGO ESAN DAITEKE DIGLOSIARI BURUZ?

Diglosia agertzen zaigula nahasiegia jadanik esan dugu; horregatik da egokia argitze-saioan sakontzea. Gainera nahasketa handitzen ari zaigula ere esan beharra dago, gizarte-fenomenoak geroz eta konplexuagoak bihurtzen ari direlako (hau ere txostenean aipatzen da: “arras konplexua et multifaktoriala den gertaera diferentzial hori...”, 45 or.), bibliografia berriaren arabera (liburuetan: Baker et al. 2000, Bhatia et al. 2006, Coulmas 1997, Fishman et al. 2011, Hamers et al. 2000, Pütz et al. 2006, Spolsky 2009, ...; zenbat aldizkarietan ere). Hau gertatzen da zenbait arrazoi ezberdinen arabera, adibidez:

1. Hizkuntza-ukipen egoerak aldatzen, edo/eta sortzen/bukatzen, ari direlako etengabe; geroz eta nekezagoa gertatzen ari da diglosia iraunkorra;
2. Ez da nahikoa ikuspegi-soziologikoa erabiltzea zenbait hizkuntza-ukipen egoerak azaltzeko eta ulertzeko; beste ikuspegi asko beharrezkoak dira ere: politikoa, ekonomikoa (o teknoekonomikoa), juridikoa, kulturakoa, soziodemografikoa, psikosoziala, ...;
3. “Diglosia” ez da ematen fenomeno soziala bakana moduan, ikuspegi-soziologikoan ere ez, baizik, alderantziz, fenomeno hau beste fenomeno batzuekin lotuta: “hizkuntza-ukipena”, “elebitasuna” eta “elebiduntasuna” (“eleaniztasuna” eta “eleanizduntasuna” ere), “bizitasun etnolinguistiko erlatiboa”, “mehatxatu- gutxiagotu- menpeko...hizkuntza” egoera, “identitate etnolinguistikoa”, “motibazio instrumentala edo pragmatikoa”, ...;

**Eskertzekoa da
Zalbidek egiten
duena
txostenaren
bukaeran:
esplizitatu,
esanez bere ustez
nolako diglosia-
modua
beharrezkoa den
euskararen
biziraupena
ziurtatzeko.**

4. Kontuan hartu beharrekoak ere dira analisi eta aplikazio maila ezberdinak: 1) diglosia eta edozein termino-tekniko erabiltzerakoan (ez da nahikoa, eta batzutan ezta zuzena ere, esatea fenomeno soziala eta ez indibiduala dela, edo alderantziz), 2) edozein giza- eta gizarte-zientzian, bakoitzak bere modutan, 3) eta edozein hizkuntza-ukipen egoeran ere. Hauek ezberdinak izan daitezke, adibidez: (a) hizkuntzen funtzio-sozialak ezberdinduz: makro- / mikro-sozialak, altuak / baxuak, formalak / informalak, publikoak / pribatuak, ...; (b) Fishmanek (1991, 2001) RLS eremuan proposatzen dituenak (txostenean 70. orrialdean), Zalbidek gehienbat jarraitzen duena txosten honetan; (c) Sánchez Carrión-Txepetxek (1987): barne-identitatea / familia / lanbidea / tokian tokikoa (zer, gurean) / nazioa / kultura eta zibilizazioa / nazioartekoa; (d) Azurmendik (1988): gizabanakoa / taldea / gizarte-egitura / hizkuntza-komunitatea / geopolitikoa (estatua barne); (e) Psikologia Fakultateko Master bateko titulua jarraituz: gizabanakoa / taldea / erakundea / kultura; (f) gizarte psikologiarako Doise (1982) autoreak proposatzen ditu: gizabanakoa, gizabanako-artekoa eta talde-artekoa, posizionala (+/- partehartze interaktibo arabera), eta ideologikoa (sistema makrosozialen eragina gizabanakoetan); ...;

5. Diglosia, eta aipatu ditugun beste termino-teknikoak ere, gehiegitan erabiltzen edo / eta aplikatzen dira: 1) modu bakartian, oraindik ere, 2) menpeko-hizkuntzekiko bakarrik, 3) eta hizkuntza hauekiko hiztun-komunitatearen barneko fenomeno bezala ia bakarrik ere (gurean ohizkoena dena), jakinda ez dagoela menpeko-hizkuntzarik beste dominatzaile-hizkuntzarekin lotu gabe, dominatzaile / menpeko artekotasuna ezinbestekoa dela kontuan hartzea, barnetik kanpora + kanpotik barnera eraginak kontuan hartu behar direla, 4) artekotasun honen harremanak asimetrikoak eta posizionalak izan ohi dira, ...;

6. Egungo mendebaldeko mundu garatuan indartzen ari diren zenbait fenomeno kontuan hartu beharrekoak dira, Zalbideren txostenean ere batzuk aipatuak (63- or., adibidez). Fenomeno hauek askotan beraien artean kontraesanezko itxurarekin ematen dira (dikotomikoki, nahiz eta continuum baten barruan ulertu behar), baita hizkuntzak (eta kulturak) aztertzerakoan ere, adibidez: globalizazioa / lekukotasuna, modernitatea / tradizioa, ekologia / axolagabetasuna, berdintasuna / ezberdintasuna, homogeneizazioa / heterogeneizazioa, gizabanakotasuna / gizabanakotasun-arduratsua edo soziala, ...; gainera, geroz eta giro aldakorragoan ematen ari dira...

Horregatik da oso garrantzitsua "diglosia" bezalako termino-tekniko polisemiko eta nahasiekin definitu eta mugatu behar izatea, ha-

sieratik, edozein lanean erabiltzen direnean, nahi bada zuzen ulertu zer esan nahi duten lan edo testuinguru bakoitzean; zentzu honetan, eskertzekoa da Zalbiderek egiten duena txostenaren bukaeran: esplizitatu, esanez bere ustez nolako diglosia-modua beharrezkoa den euskararen biziraupena ziurtatzeko (esplizitatze honen beharra, termino-teknikoak erabiltzerakoan, aspaldidanik errepikatu izan dut, baita honako BAT aldizkarian ere, azken aldiz 76. zenbakian, Azurmendi 2010); beste gauza da, ordea, ados ez nagoela egiten duen esplizitatze horrekin, gorago esan bezala. Horregatik, proposatuko nuke “diglosia” gaiaren eztabaida honekin jarraitzea, eta zabaltzea ere beste zenbait termino-teknikoekin lotuz, ikuspegi ezberdinak ere lotuz, ..., beti ere euskararen etorkizunaren argitan: agian BAT aldizkari honetan? ●

OHARRA

“Purgatorioa” metafora egokia iruditzen zait, neurri batean: sufrimendua adierazten duelako, egoera egonkorra ez delako, beren bukaera zeruan sartzea delako, ..., nahiz eta iruditu zait Zalbiderek ez duela horrela erabiltzen lanean; baina ez erabat egokia ordea, zeren eliza katolikoak berak esana du: “El papa Benedicto XVI dijo que el purgatorio no es un lugar del espacio, del universo, sino un fuego interior que purifica el alma del pecado”, “Su antecesor, Juan Pablo II, coincidió con Ratzinger en que el purgatorio existe, pero que no es “un lugar” o “una prolongación de la situación terrenal” después de la muerte, sino “el camino hacia la plenitud a través de una purificación completa”, nekeza dena bai ulertzeko, baita diglosiarekin lotzeko ere (Interneten “purgatorio”, 2011/06/22).

ERREFERENTZIAK

- Azurmendi, M.-J. (1988). Psicosociolingüística del contacto de lenguas. In *II. Euskal Mundu-Biltzarra. Euskara Biltzarra, II. Atala: Hizkuntza eta Gizartea / II Congreso Mundial Vasco. II. Alea / Congreso de la Lengua Vasca, Área II: Lengua y Sociedad. Tomo II*. Vitoria/Gasteiz: Eusko Jaurlaritza/Gobierno Vasco.
- Azurmendi, M.-J. (2002). Comentarios. *International Journal of the Sociology of Language*, 157: Focus on Diglossia, 49-58.
- Azurmendi, M.-J. (2011). BAT Soziolinguistika Aldizkariaren XX. urteurrena ospatzen: hausnarketak. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 76.: 2010 (3): *BAT Aldizkariaren XX. Urteurrena (I)*. 19-52.
- Azurmendi, M.-J., Bachoc, E. & Zabaleta, F. (2001). Reversing Language Shift: The Case of Basque. In J.A. Fishman (ed.), *Can threatened languages be saved? Reversing Language Shift, Revisited: A 21st Century Perspective*. Clevedon: Multilingual Matters.

- Azurmendi, M.-J. & Martinez de Luna, I. (2011). Success-Failure Continuum of Euskara in the Basque Country. In Fishman, J.A. & García, O. (eds.) (2011), *Handbook of Language and Ethnic Identity. The Success-Failure Continuum in Language and Ethnic Identity Efforts. Vol. 2*. New York: Oxford University Press.
- Baker, C. & Sienkewicz, A. (2000). *The care education of young bilinguals. An Introduction for Professionals*. Clevedon: Multilingual Matters.
- Coulmas, F. (ed.) (1997). *The Handbook of Sociolinguistics*. Oxford, UK: Blackwell.
- Doise, W. (1982). *L'explication en Psychologie sociale*. Paris: PUF.
- Fishman, J.A. (1967). Bilingualism with and without diglossia; diglossia with and without bilingualism. *Journal of Social Issues*, 32, 1967, 29-38. (On line: 14 APR 2010).
- Fishman, J.A. (ed.) (1991). *Reversing Language Shift; Theoretical and Empirical Foundations of Assistance to Threatened Languages*. Clevedon: Multilingual Matters.
- Fishman, J.A. (ed.) (2001). *Can threatened languages be saved? Reversing Language Shift, Revisited: A 21st Century Perspective*. Clevedon: Multilingual Matters.
- Fishman, J.A. (ed.) (2002). *International Journal of the Sociology of Language, 157: Focus on Diglossia*.
- Fishman, J.A. & García, O. (eds.) (2011). *Handbook of Language and Ethnic Identity. The Success-Failure Continuum in Language and Ethnic Identity Efforts. Vol. 2*. New York: Oxford University Press.
- Hamers, J.F. & Blanc, M.H.A. (2000) *Bilinguality and Bilingualism*. Cambridge, UK: Cambridge University Press.
- Hudson, A. (2002). Focus Article & Rebuttal Essay. *International Journal of the Sociology of Language, 157: Focus on Diglossia*. 1-48, 151-166.
- Pütz, M., Fishman, J.A. & Neff-Van Aertselaer, J. (eds.) (2006). *Along the Routes to Power: Exploration of the Empowerment through Language*. Berlin: Mouton de Gruyter.
- Sánchez Carrión, J.M. "Txepetx" (1987). *Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del Euskara y teoría social de las lenguas*. San Sebastián: ELKAR.
- Spolsky, B. (2009). *Language Management*. Cambridge, UK: Cambridge University Press.
- Zalbide, M., Gardner, N., Erize, X. & Azurmendi, M.-J. (2006). The Future of Basque in RLS Perspective. In M.-J. Azurmendi & I. Martinez de Luna (eds.), *The Case of Basque: Past, Present and Future*. Donostia: Soziolinguistika Klusterra.